

## Informatzeko jardunaldia

# KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN atariko zerbitzu telematikoak

**2010eko abenduaren 1an**

### SARRERA

---

Kontratatzailearen profila, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak eskatuta, plataforma elektronikoa da Interneten bidez hauek argitaratzeko: lizitazio-deialdiak eta haien emaitzak; eta botere publikoek nahiz haien mendeko erakundeek egiten dituzten kontratuei buruzko informazioa, garrantzitsutzat jotzen badute.

Eusko Jaurlaritzak garatu duen Kontratatzaile Profil aurreratuaren sistema helburu hauek lortzeko diseinatuta dago: Sektore Publikoaren Kontratuen Legean horri buruz ezarrita dagoena betetzea, eta horrez gain, enpresei eta botere esleitzzaileei zerbitzu eta gardentasun mailarik altuena ematea.

Era berean, kontratazio administratiboan aritzen diren funtzionarioei lana errazteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroaren beste bertsio bat abian jarri du. Bertsio berri horretan, "Egiaztagiriaren Kopia" telematikoki jaso daiteke.

Hori horrela, udaletako funtzionarioek, interesa izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroko datuak kontsultatu ahalko dituzte, eta Erregistroak egindako "**Egiaztagiriaren Kopia**" -n sarbide zuzena izango dute.

Azkenik, enpresek emandako egiaztagiri elektronikoak baieztatzeko beste bide bat ireki da "**Egiaztagiria baieztatu**" atalarekin. Bide horren bidez, KEOn jaso diren arduradunen egiaztagiriak eta sinadura elektronikoak baieztatu daitezke. Bide horrek egiaztagiriaren kopia jasotzeko baliabidea osatzen du, jarduera elektronikoen baliotasuna ziurtatzeko

Testuinguru horretan, informatzeko jardunaldira etortzeko gonbita egiten zaie aplikazio horien balizko erabiltzaileei. Kontratazio-arduradunei zein kontratazio-langileei, eta udaletako informatikariei.

## EGITARUA

09,30 h **Jardunaldiaren aurkezpena.**

**Kontratzailearen profil berria: Deskribapena/ Edukiak/ Funtzionamendua/ Erabilerraztasuna - Nola sartu**

*ANGEL CANELO. KONTRATAZIO ELEKTRONIKOAREN ARDURADUNA, KONTRATAZIO ETA ONDARE ZUZENDARITZA. EUSKO JAURLARITZA.*

**Kontratisten Erregistro Ofiziala: Deskribapena/ Edukiak/ Legezko baliotasuna/ Egiaztagiri elektronikoak igortzea/ Erabilerraztasuna/ Eskaintzaileek emandako egiaztagiri elektronikoak baieztatzea.**

*ANGEL CANELO. KONTRATAZIO ELEKTRONIKOAREN ARDURADUNA, KONTRATAZIO ETA ONDARE ZUZENDARITZA. EUSKO JAURLARITZA.*

**Izenperen egiaztagiriaren sinadura elektronikoa: sartzeko eskakizuna eta prozeduren segurtasun-bermea**

*ENRIQUE HERRERA  
IZENPE*

**Galderak**

11,00 h **Jardunaldiaren amaiera**

---

### JARDUNALDIAREN LEKUA ETA EGUNA

Bilbon, 2010eko abenduaren 1an

EUDEL – Ercilla 13 (Bilbo)

---

### NORENTZAT

Aplikazio horien balizko erabiltzaileentzat. Kontratazio-arduradunei zein kontratazio-langileei, eta udaletako informatikariei.

---

### IZENA EMATEA

Jardunaldian **izena ematea doakoa** da. Horretarako, izena emateko atxikitako orria bete behar duzu eta faxez edo posta elektronikoz bidali.

Faxa: 944 243 947

Helbide elektronikoa: [eudel@eudel.net](mailto:eudel@eudel.net)

Izena emateko azken eguna 2010eko azaroaren 30a da.

---

**KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN JARDUNALDIAN IZENA EMATEKO  
ORRIA**

1. DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Kargua: \_\_\_\_\_

Nongo Udala: \_\_\_\_\_

Zure lan-esparrua: \_\_\_\_\_

2. HELBIDEA:

Kalea/Plaza/Etorbidea: \_\_\_\_\_

PK: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_

Probintzia: \_\_\_\_\_

Harremanetarako tel. zenbakia: \_\_\_\_\_

Faxa: \_\_\_\_\_

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

OHARRA: Izena emateko datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Fitxategi horren helburua EUDELek gai horren gaineko prestakuntza- eta lan-jardunaldietarako eskabide-orriak kudeatzea da. Horiek eskuratu, zuzendu, ezeztatu edo aurka egiteko eskubideaz baliatu nahi izanez gero, eska iezaiozu Elkarteari: [eudel@eudel.net](mailto:eudel@eudel.net).

Izena emateak esan nahi du eskatzailea guzti honen jakitun dagoela eta onspena ematen duela bere datuak tratatzeko adierazitako jardunaldiarekin erlazionatutako ekintzak burutzeko, bai eta datuak lagatzeko parte hartzen duten beste entitateei jardunaldiarekin erlazionatutako ekintzak burutzeko.